



## **Hiztegitxo**


**Hobeto irakurtzen laguntzeko**




<b>abegikor</b> atsegina, gozoa	...baina ez, aitak zintzo ziharduen, irri <b>abegikor</b> bat ezpainetan.	245
<b>abstinentzia</b> zerbait jan edo edan gabe egotea	...jakin nuen ardoaren <b>abstinentzi</b> sindromearen ondorio direla.	101
<b>adats</b> ile multzo luzea, melena	...jarraian eskua luzatu, eta <b>adatsaren</b> gainean jarri zidan, eskua dar-dar...	91
<b>adeitsu</b> errespetuz, gizabidez	Zu eta zu bezalako jendea... guztiak hain guriak, hain <b>adeitsuak</b> ...	218
<b>aditu</b> entzun	...eta orduan <b>aditu</b> nituen, halaber, amonaren ezpainetatik Al Capone eta Lucky Luciano bezalako izenak.	11
<b>adore</b> kemena, ausardia	Ez nuen ezetz esateko <b>adorerik</b> izan.	52
<b>afera</b> kontua, arazoa	Baina ikaskide hark lapurreta salatu, eta anai Paulok berehala soluzionatu zuen <b>afera</b> ...	29
<b>agure</b> adineko gizonezkoa	...harako istorio hura kontatzen duen filma, <b>agure</b> zahar bat mutil gazte batekin maitemintzen denekoa.	93
<b>ahapeka</b> xuxurlatuka, isilean	...Errealaren alineazioa errepikatzen hasi zen, <b>ahapeka</b> , ohi zuen bezala...	24
<b>ahuspez</b> ahoz behera	Aurreraka erori zen, <b>ahuspez</b> , hain zorte txarrarekin, non eskumuturra bihurritu baitzitzaion..	32
<b>aitzakia</b> estakurua, desenkusa	...azken bolada hartan, gainera, edozein <b>aitzakia</b> zuen on zurrutari ohi ez bezala emateko.	95
<b>aitzin</b> aurretik, baino lehen	Baina, abiatu <b>aitzin</b> , honela mintzatu nintzaian, neure burua zauritu nahian...	126
<b>aizto</b> kutxiloa, ganibeta	...eta aitarengana hurbildu zen amona Sinforosa, <b>aiztoa</b> eskuan.	98
<b>alafede</b> ala, alajainkoa, horixe baietz	Emakume xelebrea genuen amona Sinforosa, eta nortasun handikoa, bai <b>alafede</b> !	14
<b>alboratu</b> utzi, aldendu	...goitik behera gure arteko historia osoa, xehetasun txikienik ere baztertu eta <b>alboratu</b> gabe...	216
<b>aldarte</b> umorea, jarrera	... <b>aldarte</b> a noiznahi txartzten hasi zitzaion, handik aurrera.	95
<b>ale</b> pieza, elementua	Hobe nuen, zinez, halako <b>alerik</b> ez ezagutzea, et-et-et!	211
<b>alor</b> eremua, arloa	...irakaslearen kualitate haiek are gehiago lagundu zidaten, <b>alor</b> hartan ahalegin nendin.	68
<b>amaraun</b> armiarma-sarea	...baita hariak elkarren artean lotzekoa ere, <b>amaraun</b> bat osatzen zuen arte, non gertatzen baintzen harrapaturik, eulia amaraunean bezala.	164
<b>amildegi</b> erroitza, ertz altuko lekua	<b>Amildegian</b> nengoen, ordea, bizitzeko gogoa itzalita.	234
<b>amorru</b> haserrea, sumindura	Sentitzen nuen <b>amorrua</b> erraietatik atera zitzaidan...	15
<b>anker</b> bihozgabea, errukigabea	Madrilgo komunikabideek nire aurka antolatu zuten gurutzada <b>anker</b> hura eraskugarri.	234
<b>apetatsu</b> guraritsua, kapritxosoa	Aitor dut: amarekin tirano txiki handi bat nintzen, eta nide hartatik moldatu nuen neure izaera aurreratzean ere: neure-neurea bezain <b>apetatsua</b> .	25
<b>arestian</b> lehenxeago, duela gutxi	Eta adorea itzalean uzten zituela <b>arestian</b> piztutako lotsa eta beldurra...	22
<b>arotz</b> zurgina, zura lantzen duena	...denetik genen bertan: <b>arotzak</b> , igeltseroak...	79




<b>arrakasta</b> lorpena	...nire taldearen garaipenak eta nire <b>arrakastak</b> .	95
<b>artasun</b> arreta	...angeluek berriz <b>artasuna</b> ...	88
<b>artesi</b> pitzadura, arrakala	...koadroari sekulako kolpea ematen niola, bete-betean, eta, ondorioz, <b>artesi</b> bat irekitzen niola, goitik beherainokoa...	28
<b>asealdi</b> betekada	...fisikoki ez nengoen ongi, baina ezta psikologikoki ere, <b>asealdien</b> ondoko hutsuneak gero eta handiagoak egiten baitzitzaizkidan...	206
<b>atril</b> partiturak jartzekoa	...bukatu zuen don Tasiok ebanjelioa, aldarearen eskuinera zegoen <b>atrilean</b> irakurrita ger; ekin zion...	21
<b>atzapar</b> erpea, animalien behatza	...gainera, euskal nazionalismoaren <b>atzaparrak</b> ikusi nahi zituen kontu hartan...	224
<b>auzi</b> gatazka, arazoa	<b>Auziari</b> heldu nahian, anai Jaxintorekin irten nintzen lehenengoan.	247
<b>azken hatsa eman</b> hil, zendu	...handik lau hilabetera, berriz, anai Benitok <b>azken hatsa eman</b> zuen...	55
<b>aztoramendu</b> urduritasuna	Ustekabean harrapatu nuen. Lehen <b>aztoramenduaren</b> ondotik, baina, hala erantzun zidan.	196
<b>aztoratu</b> kezkatu, urduritu	Eta zalantza ere etorri zitzaidan, barrutik guztiz <b>aztoratuta</b> ninduen zalantza...	72
<b>barreiatu</b> sakabanatu, hedatu, zabaldu	...emakume enekomano batek baino gehiagok behar baitzuen Bartzelonaren auzoetam <b>barreiatuta</b> ...	202
<b>bedeinkatu</b> goretzia, goratua	...onetsia zu, <b>bedeinkatua</b> zu eta bedeinkatua mundura ekarri zintuena...	207
<b>bederen</b> behintzat, behinik behin	...behin eta berriro esan zigun irabazi egingo genuela, potroak bere lekuan jarrita bagenituen bai <b>bederen</b> .	74
<b>begirune</b> gizabidezko tratua, errespetua	...amarekiko errespetuan eta <b>begirunean</b> , alegia.	72
<b>bekatu</b> akatsa, hutsegina	<b>Bekatuan</b> izan nuen, ordea, ordaina, koadroa oinaren gainera erori baitzitzaidan...	26
<b>belarrondoko</b> zaplastekoa, kokotekoa	...edo <b>belarrondoko</b> bat ematen zidan, motiborik eta arrazoirik gabe, bakean utz nezan...	25
<b>berretsi</b> konfirmatu, ziurtatu	Eta anai Jaxintok bertatik bertara <b>berretsi</b> zion berri gaiztoa...	56
<b>bezero</b> eroslea, klientea	...barran, berriz aita eta Emma ari ziren, <b>bezeroen</b> eskariei aurre egiten.	96
<b>birao</b> araoa, maldizona, hitz itsusia	...eta nola gauza jakina baita haurrek lehenago ikasten dituztela ikasi behar ez dituztenak (...) ni ere noiznahi ateratzen nintzen <b>biraoen</b> batekin.	54
<b>borondatez</b> gogo onez	...baina erabakiak zeuk hartu behar dituzu zeure <b>borondatez</b> , ados?	230
<b>bozgorailu</b> altaboza	Eta hala <b>bozgorailutik</b> neure izena entzun nuenean, lebitatzera nindoala iruditu zitzaidan.	77
<b>brebiarioa</b> zereginen zerrenda	...hura bere goizeko <b>brebiarioa</b> balitz bezala.	64
<b>burusi</b> manta	...kontua da nik nahi izaten nuela neure ohearen izarak eta <b>burusia</b> tolestu...	35
<b>cuatrolatas</b> kotxe mota, Renault 4L	— Barre egingo didak, baina hire Porschea ikusita, are gehiago maite diat neure Cuatrolatasa.	131
<b>debut</b> estreinaldia	Hogei urterekin egin nuen <b>debuta</b> , Atotxan, iraileko egun eguzkitsu batean.	115




<b>desenkusatu</b> zuritu, ezin etorria azaldu	Ihesbiderik ezean, ahal zuen moduan <b>desenkusatu</b> zen haietako bat.	196
<b>difamatu</b> norbaiten izena zikindu	...aho-zikin horiek <b>difamatu</b> zaituzte zu...	87
<b>dirdira</b> distira, argi printza	...bere aurpegi-keinu bihurriarekin, begien <b>dirdirarekin</b> eta besoen mugimendurekin, baita ahots tonu bereziarekin ere...	15
<b>dohakabe</b> zoritxarrekoa, gaixoa	...astebete lehenago irakurria nuen aldizkari sentsazionalista batean talidomida hartu zuen emakume <b>dohakabearen</b> kasua.	140
<b>doi</b> justu, hor nonbait	Egun batean, hamar urte <b>doi</b> nituela...	47
<b>dribling</b> erregatea	...zorutzen gaitu zure <b>dribling</b> bakoitzak, estasian jartzen...	208
<b>egoskor</b> burugogorra, tematia	<b>Egoskorra</b> nintzen eta, umetan, nahi nuena lortzen nuen.	25
<b>eltze</b> lapikoa	...eta aluminiozko <b>eltzearen</b> alboa astindu zuen...	96
<b>enologo</b> ardoetan aditua	Montserraten aita, izan ere, ez zen <b>enologoa</b> , baina bai entomologoa, intsektu eta tximeleta bildumak egiten baitzituen bere txolarteetan.	154
<b>enparau</b> gainerakoak	...Gorriti, Martinez eta <b>enparauak</b> ...	76
<b>entomologo</b> intsektuetan aditua	Montserraten aita, izan ere, ez zen enologoa, baina bai <b>entomologoa</b> , intsektu eta tximeleta bilduma egiten baitzituen bere txolarteetan.	154
<b>eragozpen</b> traba, debeku antzekoa	...Amonak bakarrik jarri zizkidan <b>eragozpenak</b> .	114
<b>ereserki</b> himnoa	Errealaren <b>ereserkia</b> kantatuz...	115
<b>eritasun</b> gaixotasuna	...baina urte haren bukaeran aitaren <b>eritasunaren</b> sintomek okerrera egin zuten.	95
<b>ero</b> zoroa	...psikiatrarena aditu orduko <b>eroaren</b> paperean sentitu bainintzen, une batez.	83
<b>errai</b> tripa, barrunbea	Sentitzen nuen amorrua <b>erraietatik</b> atera zitzaidan...	15
<b>errainu</b> izpia, printza	Ikerrek irri egin zidan, laino trinko bat zeharkatzen duen argi <b>errainu</b> batek bezala.	243
<b>erretolika</b> parrastada, rolloa, txapa	...baina kontua da aita amaren kontrako <b>erretolika</b> gero eta beroago batean sartu zela...	98
<b>errotulu</b> idazkuna	...hurrengo astean, kanpora jotzen zuten leihoetan, <b>errotulu</b> batzuk eskegi zituzten: salgai.	93
<b>eseki</b> eskegi	...eta nola sentitu nuen, telefonoa <b>eseki</b> bezain laster, aski zela amona Sinforosa bezalako emakume bat ezagutzea, bizitzak merezi zuela...	135
<b>esker gaiztoko</b> esker txarrekoa izan	<b>Eskergaiztoko</b> a behar nuen, ordea, neurri maitasun frogak erakutsi zizkidana hazi-ttanta batzuekin ez saritzeko...	215
<b>esleitu</b> adjudikatu,	...hartu zituen karta-joko bateko lau batekoak; <b>esleitu</b> zion bateko bakoitzari hiriburu bat...	80
<b>estura</b> larrialdia, itoaldia	Behin Edo behin, nire <b>esturari</b> eta nire angustiari ihes egiteko edo...	203
<b>etsi</b> amore eman	...nola bizitza osorako nahi baininduen, ez zuen <b>etsitzen</b> .	211
<b>eztei</b> ezkontza	Eta zer esan du? Jainkoak ura ardo bihurtu zuela Kanaako <b>ezteietan</b> ...	21




<b>eztenkatu</b> ziztatu	...eta orduan, erle batek <b>eztenkatu</b> balu bezala, patatak zuritzeari utzi...	98
<b>eztiro</b> goxotasunez	-eta are gehiago estutu ninduen bere besoaz, kementsu bezain <b>eztiro</b> .	220
<b>fatxada</b> etxaurrea, horma nagusia	...kasualitatez izan zen ia: handik pasatu, <b>fatxadan</b> propaganda kartel handi bat ikusi...	93
<b>ferekatu</b> laztandu, igurtzi	...bai baitzirudien, baloia ongi kontrolatzen nuenean esate baterako, setazko eskularru batez <b>ferekatzen</b> nuela, baita ferekatu orduko lotaritzen ere...	142
<b>gailendu</b> nagusitu	Harik eta egun batean haustasuna bizi-indarrari <b>gailendu</b> zitzaion arte...	236
<b>gaitz</b> eritasuna, gaixotasuna	...larriagotuz joan zen aitaren <b>gaitza</b> , harik eta behin batean ama astindu zuen arte.	97
<b>galdara</b> barrua (bertza, lapikoa)	...nik ez nuen ezer ulertzen, ulertu beharrik ere ez, beharbada, zeren eta azkar baino azkarrago berotu baitzitzaidan ostera <b>galdara</b> ...	161
<b>garaitezin</b> menperaezina	...inoiz baino erraldoiakoak eta <b>garaitezinakoak</b> zirenean...	190
<b>garratz</b> desatsegina	...beste emakume batzuekin ere momentu eztiak pasatu nituen, hori ez dut ukatuko, baina baita <b>garratzak</b> ere...	239
<b>gibelurdin</b> onddo mota bat	Baina aita onttoekin hasi, <b>gibelurdinekin</b> jarraitu, eta amanitekin bukatu zuen.	71
<b>gogoangarri</b> oroitzekoa	...filmatu eta grabatu gabeko une <b>gogoangarri</b> haietako bat oroit dezaket.	73
<b>goibeltasun</b> tristura	...erantzun zidan amonak goibel samar; haren <b>goibeltasuna</b> , ordea, berehala urtu zen irri batean...	11
<b>gonbit</b> gonbidapena	Eta, apaizaren <b>gonbitarekin</b> batera, berriro altxatu zen amona, adoretsu.	22
<b>goraintzi</b> eskuminak	— <b>Goraintziak</b> aitari. Badakizu lehengoan haserretu egin zitzaidalda...	93
<b>goraipatu</b> laudatu, goretsi	...biharamunean, berriz, nire jokaldi hura <b>goraipatu</b> zuten egunkariak bere titularretan...	144
<b>gordin</b> zakar, hitz gogorrekin	...eta <b>gordin</b> mintzatzea erabaki nuen...	250
<b>grinatsu</b> sutsu	...gau hartan bertan deitu nion, jakina, gogotsu eta <b>grinatsu</b> .	153
<b>gutiziatu</b> desiratu	...gainera, hasieratik itsutu nintzen eta alde batetik ulertzekoa da, hainbeste <b>gutiziatzen</b> nuen nik hura bezalako neska bat...	158
<b>haatik</b> hala ere	Handik aurrera, <b>haatik</b> , Errealaren alineazioa errepikatzen hasi zen...	24
<b>haizatu</b> zabaldu, hedatu, aineratu	...eta hura posibilitate bat zen, komunikabideek berehala <b>haizatu</b> zutena...	219
<b>hankoker</b> zanbo	...ni ere gelako ahate itsusitzat hartu ninduten umetan ikaskidees, <b>hankokerra</b> nintzelako..	237
<b>harmail</b> estadioetako jesarleku luzea	...eta <b>harmailtan</b> ikusten nituen ikurrinak hiru koloretako izara uhintsuak ziren...	194
<b>harritu</b> txunditu	...ez nintzen <b>harritu</b> , ekaitzak ere mota askotakoak direla ulertu bainuen une hartan...	97
<b>hasperen</b> zizpurua, hasbehera	...begiak zabaldu, burua ezker-eskuin mugitu, eta <b>hasperen</b> egin nuen.	197
<b>hazitarako</b> kumeak lortzeko arra (semental)	...etortzen utzi behar al diogu <b>hazitarako</b> zezenko honi...	225



<b>higuigarri</b> nazkagarria	...“ba al dakik zer den labezomorro <b>higuigarrien</b> sindromea? Ez? Bada, orain badakik!”	148
<b>hintxa</b> jarraitzailea, zalea	...jarraitzaileak eta <b>hintxak</b> hurbiltzen zitzaizkidanean— luma edo bolaluma esku batean, eta orria edo kuadernotxo bestean.	151
<b>hornidura</b> ekipamendua	...baita etxean sekula bukatzen ez diren beste mila kontutxorekin ere erosketak eta <b>hornidurak</b> ...	25
<b>horratx</b> hara, horra hor	Gero, zera... berorrek animatu nau, eta <b>horratx</b> ...	23
<b>hotzikara</b> hozkirria, dardara	...pelikula bukatzean, <b>hotzikara</b> batek zeharkatu zidan bizkarezurra.	93
<b>hozki</b> hozkamina (hortzetan)	...jende zaharra ikusten dudanean <b>hozki</b> a bezala sartzen zait...	192
<b>hunkituta</b> afektatuta	...harri eta zur gelditu zitzaidan, zeharo <b>hunkituta</b> .	91
<b>huskeria</b> txikikeria	...zauri txiki bat nuen hatzean, baina hura <b>huskeria</b> zen aita hitzez hitz bihotzean ari zitzaidanarekin konparatuta.	96
<b>ihardetsi</b> erantzun, arrapostu	—Ai, urrezko gol hura, 1981eko apirilaren 26an errealzaleok txapeldun egin gintuena...! — <b>ihardetsi</b> zidan...	17
<b>ildo</b> lerroa, zentzua	...nire aitak erabiltzen zituen argudioen <b>ildotik</b> zergatik arkitekto euskaldun batek sal zitzakeen bere lanaren fruituak Bartzelonan, eta ez nik neure golak?	128
<b>iltzatu</b> finkatu, tinko jarri	...nire begietan <b>iltzatu</b> zituen bereak.	83
<b>ipotx</b> nana	...sekulako txilioak egiten nituen, Oscar <b>ipotxak</b> ere miretsiko lizkidakeenak...	25
<b>irain</b> laidoa, mespretxua, ofentsa	...beroago batean sartu zela, eta <b>irainka</b> ekin ziola...	98
<b>iskanbila</b> istilua, liskarra	...sekulako <b>iskanbila</b> izan genuen, udako goizerdi batean.	95
<b>itaun</b> galdera	Eta, buruan <b>itaun</b> bat pizten zitzaidala, ezin serioago galdetu nion...	90
<b>itzartu</b> itzartu, esnatu, iratzarri	...ametsak berriro harrapatu balu bezala, begiak gora jasorik; jarraian, berriz, ametsetik bat-batean <b>itzartzen</b> zela, gaineratu zuen...	17
<b>jelosia</b> jeloskortasun	...eta, bat-batean, <b>jelosiaren</b> harrak hartuta sentitu nintzen erabat, airea falta balitzait bezala!	163
<b>juje</b> epailea	...galdetu omen zuen <b>jujeak</b> .	223
<b>kaio</b> itsas txoria (gabiota)	...itsas haizeak estadioan ereindako <b>kaio</b> zuriak bailira...	7
<b>kantoi</b> izkina, ertz, muga	...irudizko ate bat agertzen zitzaidan arte, bi marrak edo bi <b>kantoi</b> k mugatuta...	9
<b>kemen</b> adorea, ausardia	Eta kartzelan bukatu nuen, jakina, eta <b>kemena</b> berreskuratu balu bezala, ahotsaren tonua gogortu nuen.	92
<b>kikildu</b> beldurtuta, meko-meko	...halaxe egon bainintzen ni ere lehen hoge minututan <b>kikildua</b> eta zurrundua bezala, beldur eszenikoaren menpe.	136
<b>kitzikagarri</b> pizgarri, zirikatzailea	...itsututa nengoen, eta bidean jartzen zizkidaten oztopo guztiak, atzera eragin beharrean, <b>kitzikagarri</b> gertatzen zitzaizkidan, aurrera eta aurrera egiteko.	167
<b>klera</b> klarion	Gero, esplikazioarekin hasteko, <b>klera</b> esku batean hartu zuen amonak.	13
<b>komeria</b> arazoa	... <b>komeriak</b> izaten genituen koadro hura bere lekutik ateratzeko, bi laguneren artean egin behar izaten baikenuen egiteko hura...	26




<b>kosk egin</b> haginka egin	Eta, hain esan zizkidan azkar izen haiek, aurrekoak ondokoari <b>kosk egingo</b> balio bezala, non hasi orduko bukatu baitzuen aitak zerrenda.	17
<b>kredo</b> sinesbidea	Hori duk nire sinesmena eta hori duk nire <b>kredoa</b> ...	248
<b>kupel</b> barrika, upela	...hainbeste eta hainbeste ardorekin, ehun <b>kupel</b> bete ez ote dituen...	21
<b>labaindu</b> irristatu, lerratu	Amari masailetan behera malko bat <b>labaindu</b> zitzaion, eta ni ere negarrez hasi nintzen.	231
<b>langar</b> lanbroa	Eta, <b>langarrak</b> erakarrita, errukiaren antzeko sentimendu...	89
<b>larriagotu</b> okerrago jarri	...handik aurrera, gero eta <b>larriagotuz</b> joan zen aitaren gaitza...	97
<b>larrugorri</b> biluzik	...niri kendu nahi duzuen, nikia eta galtzak, <b>larrugorri</b> utzi arte...	64
<b>laudorio</b> gorespina, alabantza	...inguratzen ninduen jende gehienak ez bezala, ez zuen <b>laudorio</b> merkeetan galtzen...	50
<b>lebitatu</b> airean euskarririk gabe egon	Eta hala bozgorailutik neure izena entzun nuenean, <b>lebitatzera</b> nindoala iruditu zitzaidan.	77
<b>liluratu</b> xarmatu, miretsita	...non entzule guztiak <b>lilaratu</b> baitzituen...	209
<b>liskar</b> errieta, kalapita	...astebete lehenago, hala ere, beste <b>liskar</b> bat izan zuen amarekin.	98
<b>luma</b> boligrafoa (edo gisakoa)	...apunteak hartzeko koaderno txiki bat eta <b>luma</b> bat atera zituen.	82
<b>magal</b> altzoa, sabel aldea	...irri zabal batekin bere <b>magalaren</b> kontra besarkatzen ninduela...	16
<b>maiz</b> askotan, sarri	...eta, ildo horretatik, beste galdera bat, burura <b>maiz</b> samar etortzen zaidana.	165
<b>malenkonia</b> tristurazko jarrera, goibeltasuna	Ondoren, aitonari buruko anekdota batzuk kontatzen zizkidan amonak, <b>malenkoniaren</b> ertzetik...	12
<b>malguki</b> gailu elastikoa	...eta orduan, <b>malguki</b> ikusezin batek katapultatu balu bezala, zutik jarri, eta halaxe erantzun zion amona Sinforosak...	22
<b>marrazain</b> linierra, marra ondoko epailea	...bidera irten zitzaizkion aurkari guztiak hankaz gora utzi ondoren, atezaina bera ere bai..., baita arbitroa eta <b>marrazainak</b> ere, hortik atera kontuak!	19
<b>mehatxatu</b> amenazu egin, zemaitsu	— Jan oraintxe bertan, bestela...! — <b>mehatxatu</b> ninduen, aulkitik altxatuta.	15
<b>menera</b> aginduetara	...historia hartan ez bainintzen panpina bat baino gehiago izan, patuaren <b>menera</b> ?	145
<b>mespretxu</b> gutxiespena, iraina	...lehen esan dut, hala ere, <b>mespretxuz</b> bezala, “horrelako neska batez maitemindu nintzela, zoritxarrez”...	165
<b>miazkatu</b> milakatu, miaztu	...txilbor inguru hura <b>miazkatu</b> nion behin eta berriro...	214
<b>mihi-pozoidun</b> maiseatzailea	...neure taldekideen ezkutuko barre txikiak irudikatzen nituen, <b>mihi-pozoidunarenak</b> batez ere...	190
<b>mirespen</b> lilura	Izan ere, zer <b>mirespena</b> izan nion nik aitari, hamar-hamasei urte bitartean!	46
<b>moja</b> lekaimea	...izan ere, <b>mojen</b> errepresioak hegialak eman zizkion nire irudimenari, sexu kontuetan batez ere, sexu beste jolas bat bihurtu arte...	162
<b>mokadu</b> ahamena, hozkada	...ohi duen bezala, <b>mokadu</b> ezin hobeak eskaintzen zizkigula.	116



<b>murgilarazi</b> barneratu, sartu	...eta kontraesan horrek behin baino gehiagotan <b>murgilarazi</b> ninduen eskizofrenia ur horretan.	193
<b>nazka</b> higuina	...egun batean, kaletik nindoala, zaletu batek ezagutu, bost euroko txanpona bota eta keinu itsusi bat egin zidan, bere <b>nazkaren</b> adierazgarri.	128
<b>ñimiño</b> txikitxo	Baina patua nire alde zegoen, antza: euli batek egin zuen, bada, segidan, plater gainera, pelikano <b>ñimiño</b> baten antzera!	14
<b>obus</b> artilleriaren bala moduko handia	...defentsa bati txapela egin eta, baloia airean zegoela, <b>obus</b> bat atera zitzaidan...	66
<b>oroigarri</b> oroitzapena	—Gazterik joan zen arren, <b>oroigarri</b> on batzuk badituz behintzat...	12
<b>oroitu</b> gogoratu, akorduan izan	Antzeko eztabaida asko izaten zituzten aitak eta amonak: garai hartan bai behintzat, nik <b>oroitzen</b> dudanez.	37
<b>ororen</b> guztiena, denena	...eta berea ez ezik gurea ere bai, auzoko zaletu <b>ororena</b> .	76
<b>ostu</b> lapurtu, ebatsi	...zeru puska txikiak balira bezala, patu beltzari <b>ostuak!</b> ...	101
<b>panpakada</b> danbada, ate kolpea	Eta <b>panpakada</b> bortitz bat emanez, sukaldetik atera eta kalerako bidea hartu zuen	123
<b>patu</b> zoria, destinoa	Ez dakit <b>patua</b> izan den, kointzidentzia, kasualitatea edo Jainkoaren probidentzia.	68
<b>pixagale</b> txizagura, txizalarria	— Itxaron pixka batean, <b>pixagalea</b> dut-eta.	13
<b>potro</b> barrabilak	...behin eta berriro esan zigun irabazi egingo genuela, <b>potroak</b> bere lekuan jarrita bagenituen bai bederen.	74
<b>probidentzia</b> Jainkoaren laguntza	Ez dakit patua izan den, kointzidentzia, kasualitatea edo Jainkoaren <b>probidentzia</b> .	68
<b>purra-purra</b> oiloak deitzeko soina	...eta <b>purra-purra</b> deitzen zion oheera bere txitatxoari, eta txita oheratu egiten zen, jakina...	155
<b>rokanbolesko</b> gorabeheratsua, sinestezina	...halakoa izan baitzen gure arteko historia, eta halakoak gure maite kontuak: hain absurdoak eta hain <b>rokanboleskoak</b> ...!	164
<b>sen</b> instintua	...nondik zetorkidan futbolerako <b>sena</b> , aitarengandik...	102
<b>sermoi</b> predikua	Baina <b>sermoietan</b> ere halakoa zen apaiza, eta amona Sinforosak ez zion hura barkatzen...	21
<b>setati</b> burugogorra, tematia	...orduante sortu zen eztabaida, ezin <b>setatiago</b> jarri bainintzen ...	34
<b>so</b> begirada	...kezkatu nintzen, <b>soan</b> ezohiko antsietatea eta eskuan...	100
<b>sumin</b> haserre bizia	...injustiziak eragindako <b>suminetik</b> kontatu nuen kontatu beharrekoa.	52
<b>suzedaneo</b> ordezkoa	Montserratek hainbat <b>suzedaneorekin</b> bete zuen familiaren gabezia, gehiegikeriara joz eta ezin konta ahala gizon ospetsuz inguratzen ahaleginduz..	154
<b>talaia</b> altuera, begiralekua	...gaur nagoen <b>talaia</b> horrela ikusten ditut behintzat gauzak.	199
<b>talidomida</b> sendagai mota	...astebete lehenago irakurria nuen aldizkari sentsazionalista batean <b>talidomida</b> hartu zuen emakume dohakabearen kasua.	140
<b>topiko</b> idea egina, errepikatua	Bai, badakit hori guztia <b>topiko</b> hutsa dela, kontsumo gizarte honek sotua.	102
<b>tupustean</b> bat-batean, ustekabe	...“bada, zuk zibiletik nahi baduzu, nik elizatik...”, esan nion <b>tupustean</b> .	134





<b>txilio</b> garrasia	...izan ere, gauzak muturreraino eramaten nituenean, sekulako <b>txilioak</b> egiten nituen...	25
<b>txitatxo</b> oilo kumea	eta purra-purra deitzen zion oheera bere txitatxoari, eta txita oheratu egiten zen, jakina...	155
<b>txolarte</b> denbora tartea, aisi tartetxoa	... <b>txolarteren</b> bat geratzen zitzaigunean, elkarrekin joaten ginen orduan ere...	195
<b>txoro-txoro eginda</b> txoraturik	...eta su-festak piztu zizkidan bihotzean, <b>txoro-txoro eginda</b> bainengoen benetan...	165
<b>umezurztegi</b> guraso bako umeen lekua	...bestela, <b>umezurztegira</b> bidali beharko dut Jordi txikia, pentsa..., eta pena izango litzateke, haur ederra baita zure begiak baititu...	248
<b>urguilu</b> harrotasuna	...bere <b>urguilua</b> ere jokoan jarri zuena...	222
<b>urrats</b> pausoa	... <b>urrats</b> bat aurrera egin zuen amona Sinforosak...	21
<b>urrez josita</b> diruz betea	—Bai, nik ere beteko haizeratu, bota nuke hitza, poltsa, zuk bezala, <b>urrez josita</b> banu...	217
<b>utzikeria</b> zabarkeria, alferkeria	...eta <b>utzikeriaz</b> akusatuko ninduela...	216
<b>uztartuta</b> lotuta, elkartuta	...errealitatea eta ametsa ongi <b>uztartuta</b> , zoriontsua izango...	84
<b>xamurtu</b> bigundu, sentibera ipini	...oso ederra baitzen haurra, argazkiaren arabera, eta <b>xamurtu</b> eta hunkitu ninduen horrek ere.	249
<b>xarma</b> lilura, mirespena	...denbora berehala gastatuko baitzuen produktu eta eredu haien <b>xarma</b> ...	227
<b>zapuztu</b> mukertuta, txarto sentituta	Eta keinu <b>zapuztua</b> jokalaria esku artean zuen karta-jokoaren...	86
<b>zartagin</b> sartena	...ama-amonak <b>zartagin</b> eta eltze artean, eta ni merkrominarekin, baso baten ertz hautsiarekin egindako zauritxo bat sendatzen...	96
<b>zeta</b> oihal fin koloretsua	Amaren ahotsak <b>zetaren</b> ukitua zuen, eta esnatu ere...	115
<b>zezenko</b> idizkoa, zekortxoa	...etortzen utzi behar al diogu hazitarako <b>zezenko</b> honi...	225
<b>ziba</b> tronpa (jostailua)	—Eta orduan..., zergatik esan zigun don Tasiok lehengoan, katekesian, <b>ziba</b> erraldoi bat bezalakoa zela Lurra, Jainkoak espazioan dantzan jarritakoa...?	10
<b>zintzur</b> eztarria	...mihia ez ezik <b>zintzur</b> osoa ere eskaini nion...	204
<b>zirimola</b> zurrumbiloa, haizea bueltaka	...futbol-zelaiaren zokorik zokoenean sortutako haize- <b>zirimola</b> baten antzera.	8
<b>zirrara</b> hunkipena, emozioa	Garbi oroitzen dut haren <b>zirrara</b> , baita nire gurasoena ere...	111
<b>zoko</b> bazterra, izkina	...futbol-zelaiaren <b>zokorik</b> zokoenean sortutako haize-zirimola baten antzera.	8
<b>zurezko</b> egurrezkoa	...eskuan zuen <b>zurezko</b> goilara altxatu, eta alboan zuel aluminiozko eltzearen ondoa astindu zuen.	96
<b>zurrut</b> edana	...lehengoan haserretu egin zitzaidala, <b>zurruta</b> utzi behar zuela...	93
<b>zurrutari eman</b> tragoari, mozkortzeari	Azken bolada hartan, gainera, edozein aitzakia zuen on <b>zurrutari</b> ohi ez bezala emateko...	95